

KAUZIO-ASEGURUAREN ZIURTAGIRIAREN EREDUA (ESLEIPENDUNAREN BEHIN BETIKO BERMEA)

"Ziurtagiri-zenbakia:

(1) Aseguratzailer honak: —helbidea:;
IFZ:—, eta, haren ordezkari gisa, (ahaldunaren izen-deiturak)
jaunak/andreak, zeinek, Gasteizko Udaleko Idazkaritzan (noiz:) askietsitako
ahalordea dela medio aski ahalmen baitu egintza honetan hura horretara behartzeko,

ASEGURATZEN DU:

Aseguru-hartzailea (3): —IFZ/NAN:—

(Eratu gabeko aldi baterako enpresa-elkartearen kasuan): abal-jasotzaileak (izen-deiturak edo izen
soziala):, IFZ:, eta
....., IFZ:....., BATERA ETA MODU
SOLIDARIOAN,

aseguruaren hartzaile den aldetik, Gasteizko Udalaren aurrean (aurrerantzean aseguraturua), kopuru
honetara arte (letraz eta zenbakiz idatzi) (4): euro, Sektore Publikoko
Kontratuei buruzko azaroaren 8ko 9/2017 Legean —zeinak Espainiako ordenamendu juridikora ekarri
baititu Europako Parlamentuaren eta Kontseiluaren 2014ko otsailaren 26ko 2014/23/UE eta
2014/24/UE Zuzentarauak—, hori garatzen duen araudian eta (5) kontratua
arautzen duten administrazio klausula partikularren orrietan jasotzen den moduan —dosier-zenbakia:
.....—.

..... berme gisa (6), arauen eta aipatutako administrazio-baldintzen
ondorioz sor litezkeen betebeharrak, zigor eta bestelako gastuei erantzuteko, aseguratuaren aurrean.

Aseguratuak aitortzen du, bere erantzukizunpean, Administrazio Publikoen
Kontratuen Legearen Araudi Orokorraren 56.2. artikuluan aurreikusten diren betebeharrak betetzen
dituela. Prima —bakarra, lehena nahiz hurrengoa— ez ordaintzeak ez dio aseguratzailerari kontratua
bertan behera uzteko eskubiderik emango, eta ez da hura iraungiko, ezta aseguratzaileraren estaldura
etengo ere, edo hura bere betebeharratik aske geratuko, aseguratzailerak bermea ordaindu beharra
badu.

Aseguratzailerak ezingo ditu aseguratuaren kontra baliatu aseguru-hartzaile gisa
legozkiokeen salbuespenak.

Aseguratzailerak konpromisoa hartzen du, aseguratuari kalte-ordaina ordainduko
diola Gasteizko Udalak hala galdatzen dion lehenengo aldian, SPKLTBan eta hura garatzen duten
arauetan aurreikusitako moduan.

Kauzio-aseguru hau indarrean egongo da harik eta Gasteizko Udalak edo haren
izenean hori egiteko legez gaitua dagoenak bertan behera utzi edo itzultzea erabaki arte, Sektore
Publikoko Kontratuei buruzko azaroaren 8ko 9/2017 Legean eta horren osagarri diren legetan
xedatutakoaren ildotik.

(Lekua eta data):

Sinadura:

OHARRA: Behin-behineko eta behin betiko bermeen kasuan, baldin eta abala ematen zaion entitatea
eratu gabeko enpresari-batasun bat bada, ez dira onartuko hura osatzen duten enpresetako
bat bakarrik bermatzen duten bermeak, baizik eta aldi baterako batasuna osatzen duten

gainerako enpresak ere bermatu beharko ditu, eta berariaz jaso beharko da erantzukizuna baterakoa eta solidarioa dela, gainerako kideekin.

EREDUA BETETZEKO JARRAIBIDEAK

- (1) Aseguratzen duen entitatearen izen osoa adierazi.
- (2) Ahaldunen izen-deiturak.
- (3) Aseguratuaren izena.
- (4) Aseguruaren zenbatekoa (letraz idatzita).
- (5) Kauzioa zein kontratu dela eta ematen den zehaztu beharko da, argi eta garbi (izaera, mota eta abar).
- (6) Aseguru mota adierazi: behin-behinekoa, behin betikoa edo beste.